

## C1 MAILA

### Mintzamen-proba

#### Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

- 1. ZATIA. **Gaia** garatu
- 2. ZATIA. Bat-bateko **elkarrizketa**

(5 minutu)

(5 minutu  
azterketari  
bakoitzak)

**Guztira 10 bat  
minutu**

#### Prestatzeko denbora:

**20 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzailleek deitu arte.

#### Prestatu behar duzun gaia:

#### Telefono adimendunek eragindako aldaketak

**Arantxa Sainz de Murieta**  
**Asier Gallastegi Fullaondo**



«Noizean behin, produktu iraultzaile bat sortzen da, dena aldatzen duena». Hitz horien bidez aurkeztu zuen Steve Jobsek lehenengo telefono adimenduna edo *smartphone*-a, 2007ko urtarrilean; gailu horrek goitik behera aldatu ditu gure bizitzak, eraldaketa horren gako handienetarikoa batekin batera: konektibitatea. Telefónica Fundazioaren Gizarte Digitala Espainian izeneko txostenaren arabera, *smartphone* sortu eta 10 urte geroago, erabiltzaileak 8.500 milioitik gora ziren munduan. Hau da, dagoeneko, planeta osoan dauden biztanle baino linea mugikor gehiago dago: 103,5 linea 100 biztanleko.

Telefono adimendunak agertu ondoren, termino batzuk sortu ziren gailu mugikorrek erabiltzeak eragiten duen inpaktu pertsonala izendatzeko: adibidez, *phubbing*-a, mugikorrera begira egoteagatik norbaiti ez ikusiarena egitea, edo *nomofobia*, mugikorrik gabe egotearen beldur izatea. Txosten horren arabera, *smartphone* batez beste 150 bat aldiz aztertzen dugu egunean; espainiarren % 87k alboan izaten dute egunaren 24 orduetan, eta % 80k aitortzen du telefonoari begiratzea dela itzartzerakoan egiten duen lehen gauza. Kalkulu zorrotzegiak egin gabe, esan dezakegu gure bizitzetan sartuta geratu direla nola *phubbing* hala *nomofobia*, zelan sartu diren oso ondo ez badakigu ere.

**Administrazioa Euskaraz (laburtua)**

**144B**

#### Gaia prestatzeko:

Zer dio testuak?

Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

#### Eman zure iritzia:

Zergatik zaigu hain erakargarria *smartphone*a? Jabetzen gara gugan duen eraginaz? Nolakoa da zure inguruan sortu duen eragina? Etxetik mugikorrik gabe ateratzen ez den horietakoa zara? Nola kontrola daiteke telefonoarekiko mendekotasuna?

**(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)**

**EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN**